



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: THE MAGIC FINGER

© 1966, Roald Dahl Nominee Ltd.

© Irudiak: 1995, Quentin Blake

© Itzulpena: 2018, Xabier Bilbao

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-16-2

Lege-gordailua: M-16.312-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Hatz miragarria

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

begiko


Liburu hau Opheliarentzat eta Lucyrentzat da.



Aznar
senar-emazteak







Gure ondoko etxaldea Aznar senar-emazteena da. Bi seme ditu Aznar familiak: Peru eta Eneko. Batzuetan, haien etxaldera joaten naiz eta elkarrekin jolasten gara.

Neska naiz eta zortzi urte ditut.

Peruk ere zortzi ditu.

Eneko hiru urte zaharragoa da. Hamar ditu.

Zer?

Bai, bai, barkatu.

Hamaika urte ditu.

Joan den astean gauza dibertigarria gertatu zitzaion Aznar familiari. Ahal dudan ondoen kontatuko dizuet.

Gauza bat gustatzen zitzaien Aznar aitari eta bi semeei beste ezer baino gehiago: ehizan egitea. Larunbatero, goizean goiz, eskopetak hartu eta basora joaten ziren animalien eta txorien atzetik ibiltzera, tiro egiteko. Peruk zortzi urte besterik ez zuen, eta bazeukan bere eskopeta eta guzti.

- 12 Ez zait batere gustatzen ehiza. Ezin dut hitza entzun ere egin. Ez dago ongi gizakiok animaliatxoak hiltzea ongi pasatzeko. Horregatik, saiatu egiten nintzen Peru eta Eneko ehizatik aldentzen. Haiek bisitatzen nituen bakoitzean ahal nuen ongien azaltzen nien zergatik utzi behar zuten ehiza, baina barre egiten zidaten beti.





Behin, Aznar jaunari zerbait esan nion ehi-
zaz, baina berak aurrera jo zuen niri begiratu
ere egin gabe.

Orduan, larunbat goiz batean, Peru eta Ene-
ko ikusi nituen aitarekin basotik etortzen, orein
gazte eta eder bat zintzilik zekartela.

14 Horrek haserretu egin ninduen, sutu, eta
haiei oihuka hasi nintzen.

Mutilek barre egin zidaten eta imintzioka
hasi ziren, eta Aznar jaunak etxera joateko eta
ganoraz hitz egiten ikasteko esan zidan.


Horixe entzun behar, gainera!

Sutan jarri nintzen.

Eta ohartu orduko, sekula gehiago egin nahi
ez nuen gauza bat egin nuen, alegia,

HATZ MIRAGARRIA
ZUZENDU NIEN GUZTIEI!

Ai ene! Ai ene! Az-
nar andreari ere zuzendu
nion, bera han ez egon
arren. Familia osoari zu-
zendu nion.



Hilabeteak eta hilabeteak pasatu nituen
neure buruari esaten ez zuzentzeko gehiagot-
an Hatz Miragarria inorengana, Garratzaga
andreari —nire irakasle zaharrari— gertatu
zitzaiona ikusita.

Garratzaga andre gaixoa!

Egun batean eskolan geunden. Hitzak nola
zuzen idatzi irakasten ari zitzaigun.

15

—Zutik jarri! —esan zidan—. Nola idazten
da *katua*?

—Hitz erraza da —esan nion—, ka-te-u-a.

—Neskatila leloa zara! —esan zidan Garrat-
zaga andreak.



—Ez naiz neskatila leloa! —egin nion oihu—. Oso neskatila atsegina naiz!

—Jarri zaitez txokoan zutik! —agindu zion Garratzaga andreak.

Orduan haserretu egin nintzen, sutan jarri nintzen, eta Garratzaga andreari Hatz Miragarria zuzendu nion, zuzen-zuzen zuzendu ere, eta ia bat-batean...

Ezetz asmatu zer?

Ileak hasi zitzaizkion ateratzen aurpegian. Beltz-beltzak eta luze-luzeak ziren, gainera, katuek dituztenen modukoak, baina askoz luzeagoak. Eta berehala hazten ari ziren! Ohartu orduko belarriak bezain zabal zituen!



Noski, ikasle guztiak lehertu beharrean zeuden barrez, eta Garratzaga andreak esan zuen:

—Esango didazue, mesedez, zer iruditzen zaizuen hain barregarria?



17

Eta arbelerantz jiratu zelarik zerbait idazteko asmotan, buztana ere atera zitzaiola ikusi genuen! Buztan eder-ederra gainera!

Ez dizuet kontatuko zer gertatu zen gero, baina zuetako norbaitek jakin nahi badu Garratzaga andrea orain ongi ote dagoen, erantzuna «EZ» da. Eta aurrerantzean ere ez da ongi egongo.